

Google Glass, aurrera ala akabo?

AZKEN BI URTEOTAN behin baino gehiagotan irakurri ditugu Google Glassen inguruko berriak. Azkenetako batek zioen kirurgialari frantziar batek egingako ebakuntza online transmititu zela; bazirudien Google Glassek gero eta erabilpen esparru zabalagoa izango zuela.



GOOGLE


Baina urtarrilaren 15ean Googlek iragarri zuen urtarrilaren 19a izango zela azken eguna errealitate areagotuko betaurrekoak eskatzeko. Berri horri buruzko analisiak kontrajarriak izan dira. Batzuek uste dute Googlek, bi urteko saiakeren ondoren, betaurrekoak merkaturatuko dituela; beste batzuen iritziz, aldiz, konpainiak ez du garbi produktuarekin aurrera egin ala ez.

Ez dakigu Googlen estrategia komunikatiboaren azkeneko helburua zein den, baina Google Glassen 1.500 dolar inbertitu dutenak kezkatuta izango direla uste dugu, batez ere enpresak kaleratutako iragarkia oso hotza izan delako. ■



Bihotz artifizialari esker bizirik

URTARRILAREN 2AN bihotz artifiziala jarri dioten 68 urteko gaixo batek senda-agiria jaso zuen, Frantzia. Azken bi urteotan bihotz artifiziala ezarri dioten bigarren pertsona da. Lehenak 76 urteko zeuzkan eta 74 egun baino ez zuen iraun, gorputzeko beste atal batzuk oso kaltetuta baitzituen, antza.



CARMAT

Urtarrilean senda-agiria jaso duen gaixoak berriz, gazteagoa izateaz gain, egoera onean ditu beste gorputz atalak. Hala, medikuek uste dute bizimodu egokia izateko aukera edukiko duela.

Carmat izeneko bihotz artifizialak hiru kilogramoko pisua du, eta elektrizitatez hornitzeko bi bateria ditu. Gaixoak errebio arruntak baino ez ditu egin behar izango, eta erabat autonomoa izan da eguneroko bizimoduari dagokionez. ■



Zelula amen ikerketan iruzurra

Zientzian eta teknologian ikerketa ugari daude abian eta guztiak ez dira ikerlariiek espero bezala amaitzen. Porrota, batzuetan, jasanezina da ikerlarientzat, eta zenbaitetan erreakzioa gezurretan aritzea izaten da. Iazko kasurik esanguratsuenak zelula amekin zerikusia izan zuen; ikerlari nagusiak, azkenean, bere buruaz beste egin zuen.

ttiki.com/299151
(Euskaraz)

Groenlandiako ibaiak uste baino azkarrago ari dira izotza itsasora eramaten

Berotegi efektuaren bidez Groenlandian izotza urtzen ari da, eta likidotzen den ur hori, izotz gainean geratu beharrean, ibaien bidez isurtzen da itsasora. Groenlandiako gainazalaren %80 izotzak estalita dago, eta hura urtzeak zerikusi handia du itsas mailaren igoerarekin.

ttiki.com/299152
(Gaztelaniaz)

Sulfatoak arnasten dituzten mikrobioak daude itsas hondoa

Hiru kilometrotik beherako itsas hondoa sulfatoak arnasten dituzten mikrobioak aurkitu dituzte. Antzeko gertaera jazo izan da hainbat urtegitan, baina inoiz ez da halako mikroorganismo atzeman hain sakonera handian. Mikrobio horiek Lurreko bizidun zaharrenetakoak direla uste dute ikerlariak.

ttiki.com/299156
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16